

**EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAKO TITULUEN SEGIMENDU
TXOSTENA
(PLAN PILOTUA)**

V. 1.3 2012/03/08

AURKIBIDEA

	Orriak
1. PROGRAMAREN LABURPEN LABURRA ETA PROGRAMAREN OINARRI DEN LEGERIA	1
2. PLAN PILOTUAREN KRONOGRAMA.....	2
3. SEGIMENDUA EGITEKO PROZEDURA	3
4. LORTUTAKO EMAITZAK.....	7
5. SEGIMENDUAREN GARAPENARI BURUZKO GOGOETA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK	9
6. ERREFERENTZIAK.....	11

1. PROGRAMAREN LABURPEN LABURRA ETA PROGRAMAREN OINARRI DEN LEGERIA

Unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua eta 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duen uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretua argitaratzen direnez geroztik honako hau ezartzen da:

- Unibertsitate Kontseiluaren eta ANECAren eta autonomia-erkidegoetako beste ebaluazio-organo batzuen bitartez tituluak egiaztatu eta haien akreditazioa eskuratzeko obligazioa,
- dagokion autonomia-erkidegoko gobernuak haiek baimentzea eta
- akreditazioak iraungitze-data izatea.

Uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuaren 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, tituluak egiaztatu direnetik edo azken akreditaziotik sei urte igaro aurretik, graduako eta doktoregoko unibertsitate-tituluak beren egiaztapena berritu beharko dute hasierako proiektuan hartutako konpromisoak bete ote diren ebaluatzeko prozesu batean, ANECAk edo ebaluazio-agentzia autonomikoek egindako ebaluazioa gauzatu ondoren. Era berean, masterreko tituluak aipatutako prozeduraren eraginpean jarriko dira lau urte igaro aurretik.

Gratu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 17. artikuluen 4. atalak ezartzen du Unibasq agentziak egingo duela Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate-irakaskuntza ofizialen segimendua.

Halaber, uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuaren 27. artikulua ezartzen du ANECAk eta dagozkion ebaluazio-organoek gauzatuko dutela segimendua, eta, Hezkuntza Ministerioarekin eta dagozkion autonomia-erkidegoekin batera elkarlanean, ikasketa-planen segimendua egiteko prozeduraren gutxieneko irizpide eta oinarrizko adierazleak barne hartuko dituen protokoloa prestatuko dutela. Unibasq agentziak "Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate-titulu ofizialen segimendua egiteko Protokoloa" egin zuen CURSA Batzorde Teknikoak (Segimendua eta Egiaztapena Arautzeko Unibertsitate Batzordea) egindako "Unibertsitate-titulu ofizialen egiaztapenaren segimendua egiteko eta egiaztapen hori berritzeko Protokoloan" eta indarreko araudian oinarrituta.


Oinarrizko irizpideak eta adierazleak ezartzeko, Unibasq agentziak ikasketa-planei buruzko esperientzia pilotu bat egitea bultzatu zuen. Esperientzia horretan Euskal Unibertsitate Sistemako 8 titulazioek hartu zuten parte.

2. PLAN PILOTUAREN KRONOGRAMA

SEGIMENDUAREN FASEAK	ARDURADUNA	DATAK
Titulazioen segimendua egiteko eta iradokizunak biltzeko tresnak lantzea	Unibasq-Unibertsitateak-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2010eko uztaila
Plan Pilotuaren aurkezpena	Unibasq-Unibertsitateak	2010eko azaroa
Segimenduaren xede diren titulazioak hautatzea Plan Pilotuan	Unibertsitateak	2011ko otsaila
Segimendu Protokoloa argitaratzea	Unibasq	2011ko martxo
Hautatutako titulazioen segimendu-txostenak bidaltzea	Unibertsitateak	2011ko martxo
Segimendu-txostenen azterketa tekniko	Unibasq	2011ko apirila
Titulazioak Ebaluatzeko Batzordea izendatzea	Unibasq	2011ko iraila
Espedienteak esleitzea Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeari	Unibasq	2011ko iraila
Titulazio bakoitzaren behin-behineko txostenak ematea	Unibasq	2011ko urria
Behin-behineko txostenari buruzko alegazioak aurkeztea	Unibertsitateak	2011ko azaroa
Alegazioak berrikustea	Unibasq	2011ko abendua
Titulazio bakoitzaren azken txostenak ematea	Unibasq	2012ko urtarrila
Hobetzeko proposamenak	Unibasq-Unibertsitateak-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2012ko urtarrila

3. SEGIMENDUA EGITEKO PROZEDURA

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateen ikasketa-planei buruz Unibasq agentziak egindako segimendu-txostena lortzeko prozedura urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuan eta uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak aldatzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan ezartzen denaren arabera arautzen da, eta honako etapa hauetan garatzen da:



2010eko azaroan bilera bat egin zen Unibasq agentziaren egoitzan Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateekin, eta bilera horretan txostenak aurkezteko datak, aurkeztu beharreko segimendu-txostenen kopurua, Protokoloaren zirriborroa aurkeztu eta Plan Pilotuaren segimendua egiteko tresnak ezarri ziren.

2011ko martxoaren 22an, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren zuzendariaren 2011ko otsailaren 21eko Ebazpena argitaratu zen EHAA. Ebazpen horren bitartez, 2010eko azaroaren 10ean argitaratu zen Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren Administrazio Kontseiluak onartutako Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitate Titulu Ofizialen Segimendua egiteko Protokoloa. Dokumentu hori egiteko, argitaratu aurretik ekarpenak eskatu zitzaizkien Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateei eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Dokumentu hori CURSA Batzorde Teknikoak (Segimendua eta Akreditazioa Arautzeko Unibertsitate Batzordea) egindako “Unibertsitate-titulu ofizialen egiaztapenaren segimendua egiteko eta egiaztapen hori berritzeko Protokoloan” eta indarreko araudian oinarritu zen.

2011ko martxoan 8 segimendu-txosten, Mondragon Unibertsitatearen 3 txosten, Deustuko Unibertsitatearen 3 txosten eta UPV/EHUren 2 txosten jaso ziren. 8 segimendu-txosten horietatik 5 masterretako titulazioen segimendu-txostenak ziren eta 3 graduak (1. taula).

Unibertsitateek plan pilotuan parte hartzeko hautatu zituzten ezarritako titulu bakoitzaren segimendu-txostenak egin zituzten. Txosten horretan lau atal bildu ziren:

- Unibertsitateek web-helbideak zehaztu zituzten; helbide horietan eskuragarri dagoen informazio publikoa –Protokoloaren Eranskinean proposatzen dena– kontsulta zitekeen.
- Unibertsitateek azaldu zuten zer tratamendu eman zaien Unibasqen eta ANECAREN ebaluazio-txostenetan azaltzen diren oharrei eta gomendioei.
- Titulazioaren segimendua egiteko ezarritako adierazleak eta tituluaren emaitzen azterketa erantsi zuten.
- Titulu bakoitzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren aplikazioaren emaitzak, eta emaitza horien artean atzemandako indarrak eta ahuleziak eta hobetzeko hartutako neurriak erantsi ziren.

IZENA	TITULU OFIZIALA	UNIBERTSITATEA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO GAITZEN DUEN UNIBERTSITATE MASTERRA	MASTERRA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
INDUSTRIA DISEINUKO ETA PRODUKTU GARAPENeko INGENIARITZA	GRADUA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA	GRADUA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
KOMUNIKAZIOA	GRADUA	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, BATXILERGOKO, LANBIDE HEZIKETAKO ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO UNIBERTSITATE MASTERRA	MASTERRA	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO ENPRESEN KUDEAKETA - EUROPEAN AND INTERNATIONAL BUSINESS MANGEMENT	MASTERRA	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
NAZIOARTEKO IKASKETAK	MASTERRA	UPV/EHU
EUROPAKO UNIBETSITATE MASTERRA ITSAS BALIABIDEAK ETA INGURUGIROA / EUROPEAN MASTER IN MARINE ENVIRONMENT AND RESOURCES	MASTERRA	UPV/EHU

1. taula.- Plan Pilotuan segimendu-txostenak aurkeztu dituzten Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateen titulazioak.

2011ko irailaren 30ean Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren zuzendariaren 2011ko abuztuaren 30eko Ebazpena argitaratu zen EHAA. Ebazpen horren arabera, Gradu

Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeetako kideen kargu-uztea ezartzen da eta Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeko kideak izendatzen dira.

2011ko irailean lehenengo bilera egin zen Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearekin, eta bilera horretan prestakuntza-jardunaldi bat egiteaz gain, ebaluatu beharreko espedienteak esleitu ziren.

2011ko urrian Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen bigarren bilera egin zen, eta bilera horretan titulazio bakoitzaren behin-behineko segimendu-txostenak eman ziren. Hilabete horretan bertan, behin-behineko segimendu-txostenei egindako alegazioak aurkeztu zituzten unibertsitateek.

2011ko abenduan Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen hirugarren bilera egin zen, eta bilera horretan behin betiko segimendu-txostenak eman ziren. Txosten horiek Unibertsitateetara eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera igorri ziren.

2012ko otsailean bilera bat egin zen; bilera horretara hiru unibertsitateak bertaratu ziren plan pilotuaren emaitzak elkarrekin aztertzeko eta hobetzeko proposamenak biltzeko, titulazioei segimendua egiteko bigarren urtean txertatzearen.

4. LORTUTAKO EMAITZAK

IZENA	TITULU OFIZIALA	UNIBERTSITATEA	Eskuragarri dagoen informazio publikoaren balioespena	Tituluan egindako aldaketen balioespena	Adierazleen balioespena	KBBSaren funtzionamenduaren balioespena
KOMUNIKAZIOA	GRADUA	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	Nahikoa	Ez dagokio	Nahikoa	Hobe daiteke
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, BATXILERGOKO, LANBIDE HEZIKETAKO ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO UNIBERTSITATE MASTERRA	MASTERRA	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	Nahikoa	Positiboa	Nahikoa	Hobe daiteke
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO GAITZEN DUEN UNIBERTSITATE MASTERRA	MASTERRA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	Hobe daiteke	Positiboa	Nahikoa	Hobe daiteke
NAZIOARTEKO IKASKETAK	MASTERRA	UPV/EHU	Hobe daiteke	Positiboa	Nahikoa	Hobe daiteke

IZENA	TITULU OFIZIALA	UNIBERTSITATEA	Eskuragarri dagoen informazio publikoaren balioespena	Tituluan egindako aldaketen balioespena	Adierazleen balioespena	KBBSaren funtzionamenduaren balioespena
EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO ENPRESEN KUDEAKETA - EUROPEAN AND INTERNATIONAL BUSINESS MANGEMENT	MASTERRA	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	Hobe daiteke	Positiboa	Nahikoa	Hobe daiteke
EUROPAKO UNIBERTSITATE MASTERRA ITSAS BALIABIDEAK ETA INGURUGIROA / EUROPEAN MASTER IN MARINE ENVIRONMENT AND RESOURCES	MASTERRA	UPV/EHU	Hobe daiteke	Ez dagokio	Hobe daiteke	Hobe daiteke
INDUSTRIA DISEINUKO ETA PRODUKTU GARAPENEKO INGENIARITZA	GRADUA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	Hobe daiteke	Positiboa	Nahikoa	Hobe daiteke
ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA	GRADUA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	Nahikoa	Ez dagokio	Hobe daiteke	Hobe daiteke

Tituluaren memoria egiaztatuan jasotako informazioarekin eta unibertsitateek aurkeztutako segimendu-txostenean adierazitako webgunean bildutako informazioa egiaztatuz aztertu zen eskuragarri dagoen informazio publikoari dagokion atala. Aurkeztutako tituluetatik hiruk nahikoa balioespena lortu zuten eta bostek atal honetan hobe daitekeela.

Tituluan egindako aldaketen atalean unibertsitateak aurkeztutako segimendu-txostenean jasotako informazio jakin bat egiaztatu da, zehazki, ANECAren ebaluazio-txostenean, behin-betiko txostenetan eta Unibasq agentziaren behin-betiko txostenetan adierazitako iruzkinen eta gomendioen tratamendua agertzen duen informazioa, hain zuzen ere. Atal hau ebaluatu behar zen titulazio guztiek balioespen positiboa izan zuten.

Adierazleen atalari dagokionez, unibertsitateak aurkeztutako segimendu-txosteneko informazioa aztertu zen. Txosten horretan Protokoloaren Eranskinean eskatzen ziren adierazleen emaitzak eta unibertsitateak adierazle horietatik atera zituen ondorioak aurkezten ziren. Aztertu zen adierazleen emaitzak eskuragarri ote zeuden web-orrian, eta informazioa eguneratuta ote zegoen eta erabilerraza ote zen. Kontuan izan zen titulu ofizialak ezarriko ziren lehenengo urteetan, aipatutako alderdi batzuek ez zutela nahikoa daturik eta ebidentziarik ematen segimenduaren balioespena egiteko. Atal horretan sei titulaziotik lortu zuten nahikoa balioespena eta bik hobe daitekeela.

Azkenik, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema ezarrita ote zegoen eta tituluari buruzko informazioa lortzea ahalbidetzen ote zuen aztertu zen, geroago erabakiak hartzeko erabiltzeko informazio hori. Era berean, aztertu zen Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemako informazioa (garapena eta lortutako emaitzak) eskuragarri ote zegoen web-orrian, eta informazioa eguneratuta ote zegoen eta erabilerraza ote zen. Atal honetan, aurkeztutako segimendu-txosten guztiek hobe daiteke balioespena jaso zuten.

5. SEGIMENDUAREN GARAPENARI BURUZKO GOGOETA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Titulazioen lehenengo segimendu-urtea amaitu ostean eta emaitzak aztertu ondoren, esan daiteke Plan Pilotu hau diseinatzeko xede izan ziren asmoak bete direla:

- Ikaskuntzak benetan gauzatzen direla bermatzea ezarritako tituluaren ikasketa-planean bildutakoaren arabera, Unibertsitateen, Zentroen eta

Tituluen Erregistroan (UZTE) azaltzen denari jarraiki, Unibertsitate Kontseiluak eta baimenduek onartutako aldaketekin batera.

- Informazio egokiaren eta garrantzitsuaren erabilgarritasun publikoa bermatzea Unibertsitate Sistemako intereseko agenteei.
- Irakaskuntzen benetako garapenean egon daitezkeen hutsuneak atzematea eta hutsune horiek konpontzeko gauzatutako ekintzak aztertzea.
- Hobetzeko gomendioak ematea eta/edo iradokizunak egitea ikasketaplana ezartzen den bitartean.

Segimenduaren emaitzen aldizkako balioespenen eta aurtengo otsailean Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiekin egindako bileraren ondorioz, hainbat hobekuntza proposatu ziren, eta hori dela medio gaur egun aldatzen ari gara Unibasq agentziaren Segimendu Protokoloa, prozedura errazteko eta ekonomikoki eta funtzionalki iraunkorra izan dadin.

Datozen hilabeteetan honako hobekuntza-proposamen hauek kontuan hartuta lan egingo da, betiere lortutako emaitzak optimizatzearren:

- ✓ Epeak laburtzea.
- ✓ Segimendua egiteko egutegia inplikaturako agente guztien premietara egokitzea.
- ✓ Ikasleak ebaluazio-prozesuan txertatzea.
- ✓ Atzemandako jardunbide egokiak hedatzea.
- ✓ Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren aplikazioa balioestearen ondoriozko informazioa aurkezterakoan unibertsitatei bikoiztasunak saihestea.
- ✓ Agentziaren segimendu-txostenaren kalifikazio-maila egokitzea.
- ✓ Segimendua ebaluatzeko tresnak lantzea prozedura errazteko helburuarekin (ebaluatzailearen gida, egiaztatutako tituluaren memoriaren ezaugarri garrantzitsuenen zerrenda, eskatutako adierazpenen definizioa, hutsune larrien zerrenda, eta abar).
- ✓ Ebaluatzaileen Gida eta segimendua egiteko Unibasq agentziak sortzen dituen tresnak argitaratzea.

6. ERREFERENTZIAK

- [1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 29koa, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duena.](#)
- [11/2009 Dekretua, urtarrilaren 20koa, Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa.](#)
- [Unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duen uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretua.](#)
- [Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa](#)
- [Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legea.](#)
- [EBAZPENA, 2011ko otsailaren 21ekoa, Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziaren zuzendariarena; horren bitartez, Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren Administrazio Kontseiluak onartutako Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitate Titulu Ofizialen Segimendua egiteko Protokoloa argitaratu zen 2010eko azaroaren 10ean.](#)
- [EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 30ekoa, Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziaren zuzendariarena; horren bitartez, Gradu Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeetako kideen kargu-uztea ezartzen da eta Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeko kideak izendatzen dira](#)